

Euskal AEko bigarren postuan dago 65 urte eta gehiago duten biztanleen Europar Batasuneko herrialdeen sailkapenean


% 22,2ko balioa zuen, EB 28k 2019an zuen batez bestekoaren (% 20) gainetik

Adierazle demografiko garrantzitsuenetakoa da adinaren arabera biztanleriaren egiturari lotutakoa, zehazki, 65 urte eta gehiago dituen multzoari. 2019an, Euskal AEko biztanleria-ehunekoa tarte horretan EB 28ko herrialdeetako altuenetakoa da, Eustaten eta Eurostaten azken datuek erakusten dutenez. Biztanleriaren % 22,2k 65 urte eta gehiago zituen, urte horretan EB 28ko herrialdeen batez bestekoaren (% 20) gainetik zegoen. Europar Batasuneko herrialde guztiak kontuan hartuz, Italia baino ez dago (% 22,8) Euskal Autonomia Erkidegoaren gainetik.

Adin-talde bakoitzaren bilakaera, bistan denez, adin-talde bakoitzean sartzen diren belaunaldien tamainaren ondorio da, belaunaldi bakoitzean heriotza-tasak, migrazioak eta jaiotza-tasak duten efektu diferentzialaz gain. Adineko pertsonen progresioa azaltzeko bizi-itxaropenaren igoera ere hartu behar da kontuan.

Euskal AEn 65 urte eta gehiago dituztenen multzoaren ehunekoak gora egin du 2008-2019 aldian. Hala, 2008. urtean biztanleen % 18,6 ziren, 2013. urtean % 20,2 eta 2019. urtean % 22,2.

Biztanleria adin taldeka: (65 urtez gorakoak) EB 28n. 2019




Iturria: Eustat. Euskadi Europar Batasunean eta EUROSTAT (2020-07-24)

Espainian, berriz, 2008. urtean 65 urte eta gehiago zituzten biztanleen multzoa % 16,4 zen bitartean, 2019. urtean % 19,4 zen. Edozein kasutan, Euskal AE ez bezala, urte horietan guztietan EB 28ko herrialdeen batez bestekoaren azpitik egon da.

Sailkapena kontuan hartuz, 2019an, Euskal AErkidegoko 65 urte eta gehiago zituztenen multzoaren gainetik Italia baino ez zegoen (% 22,8). Italiaren ondoren zeuden Grezia (% 22), Finlandia eta Portugal (% 21,8, hurrenez hurren) eta Alemania (% 21,5), besteak beste.

Biztanleria adin taldeka: (65 urtez gorakoak) EB 28n

Ehunekoak



Iturria: Eustat. Euskadi Europar Batasunean eta EUROSTAT (2020-07-24)

Aitzitik, adin multzo honentzako ehuneko baxuenak zituzten EB 28ko herrialdeen artean zeuden Polonia (% 17,7), Zipre (% 16,1), Eslovakia (% 16), Luxenburgo (% 14,4) eta, zerrendaren azken tokian, Irlanda (% 14,1).

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz
Prensa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62